




ARÆETA

SAGARDOTEGIA



Próxima apertura

Arbitza bidea
Tel. 36 20 40 36 46 04

ZUBIETA



Sagardotegia
Erretegia

OTZUEN TXIKI BASERRIA
OSINAGA AUZOA

TELF. 55. 64. 05
HERNANI

PAGAMUÑO SAGARDOTEGIA



Pagamuño auzoa
Tfnoa.: 69 18 19 - 69 15 83

ZIZURKIL




Sagardotegia

Telf - 69 02 83-65 26 22
ASTEASUN

AMONDARAIN

SAGARDOTEGIA



Gure Ametsa-Santa Luzi auzoa

Telf.: 65 33 54

TOLOSA

Benefiziorik gabeko bertsolaritza

Joxean AGIRRE

Beharbada Lexoti da sagardotegietan hezitako gure azken bertsolaria. Diotenez, Uztapide gaztea ere ez zebilen giro horretatik oro aparte, Basarrik "bide onera" ekarri zuenean. Eta gaur egungo bertsolari beterano askok ere eskola horretan egin zuten beren karrera. Horrek ez du esan nahi sagardotegietako bertsolarien arraza hori horrenbestean bukatu denik.

Gaurko bertsolari punta-puntako askok sagardoa baino coca-cola gehiago edan dute beren bizitzan, baina hala ere eskola zaharreko bertsolari haundi haien bertute eta bizioak suharki imitatu dituzte: zurruteroak dira, malditismo puntu bat gustatzen zaie eta bizitza ordenu eta diziplina gutxiarekin gobernatzen dute.

Lexotik, sagardotegietako azken bertsolari enblematikoak, askoz ere esajeratuagoak zituen ezaugarri horiek. Ez zuen ofizio jakinik eta gutxiago benefiziorik eta gogoia zuenean bakarrik kantatzen zuen eta alproja fama horrek haundi-maundien begietan prestijio eta ohore gutxiko egiten bazituzten ere, izugarri bertsolari maitagarri eta maitatuak ziren lagunarteko zirkuluetan.

Eskola horren berri gaurko bertsolari haundi askok ere dakite. Joxe Lizaso bera tabernako bertsolaria izan zen berandu arte, igandetan neska-laguntza egin eta egindako hazainak eta are egin gabekoak ere kontatzeko bertsotan egiten zuten bertsolari horietakoak.

Eskola horretan ikasi zuten batez ere zaharragoek, Hernaniko Paulo

Txikia bereziki eta eskola horretan heziak izan ziren Mitxelena bera eta gaurko adineko herri bertsolari askok eta asko.

Hala ere, ez gaitzen engaina. Sagardoak ez du bertsotarako berezko dohainik eta seguru asko ardoaz sagardoaz hainbat bertso idatzi da joan den mendearen azken urteetik gaurdaino. Bertsolaritza biren gauza da edo taldeko arte bat eta sagardotegiak elkagune hori posibilitatzen zuten.

Bertsolaritzarik jatorrenak biren gauza izaten segitzen du. Sagardo usaia galdu egin du. Egaña, Murua eta Lizasok ez dute jadanik alprojatik edo bufoitik ezer askorik, baina adar-jotzen ez dute parerik eta hori ere eskola zaharreko bertsolarien bertute nagusienetako bat da.

Tripaundi eta bere lagunak sagardotegian

Bertso hauek, Gregorio Mujika zanaren bildumatik hartuak dira, kanta-paper batetik alegia. Moldiztegi-izena: *Tip. R. Frández. Irún.*

Irunen inprentatutako bertsoak, beraz. Bainen bertan jarirak ote ziren? Ezin dugujakin.

Tripaundi hori, zelebreren bat izango zan eta sagardotegiko lagunak arentzat bertso hauek jarri. Kantatu ere egingo zizutzen umore ederrean danak batera.

1. Gure Tripaundi dago beti zurrutian (bis), kupelan baztarrian mozkortu artian, Tripaundi, beti zurrutian, Tripaundi, mozkortu artian.

2. Gero tabernariyak ortik bialtzian, andriari jipoia etxera juatian, Tripaundi, ortik bialtzian, Tripaundi, etxera juatian.

3. Tripaundi ibiltzen da arront berotuta, gerrikua zintzilik txapela galduta, Tripaundi, arront berotuta, Tripaundi, txapela galduta.

4. Mutil koskor guziyak ondora bilduta, ez dio ajolikan lotsarik ez du ta, Tripaundi, ondora bilduta, Tripaundi, lotsarik ez du ta.

5. Kalian ziraldoka dalako ibiltzen, mutil koskor guziyak dute ezagutzen, Tripaundi, dalako ibiltzen, Tripaundi, dute ezagutzen.


6. Noizik behin Eskalantek kartzelan sartzian, sermoia egiten du erriko etxian, Tripaundi, kartzelan sartzian, Tripaundi, erriko etxian.

7. Handik ateratzian baldin badu sosik, sagardotegira berriz sartutzen da pozik, Tripaundi, baldin badu sosik, Tripaundi, sartutzen da pozik.

8. Eta berialaxe usturik basua, esaten du Tripaundik: "Au mama gozua!" Tripaundi, usturik basua, Tripaundi, "Au mama gozua!"



PETRITEGUI SAGARDOTEGIA



☎ 45 71 88

ASTIGARRAGA



Donostiako sagardoa

Donostian oso sagardo txarrak saltzen direla eta, bertsolaria oso asarre agertzan zaigu. Hori da bertso hauen gaia.

Lehendabiziko bertsoan, zazpigarren lerroan, hitz bat ilun xamar dago Aita Aranaren bilduman. Erdiko letra bat ezin irakurri eta hitza ezin osatu. Beharbada *frilateran* esan nahiko du. Bañan duda egin ditekete. Horregatik, ez gera hutsune hori betetzen ausartu.

- | | | | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1. Orra bertso berriak euskera garbiyan, zer pasatuzen zaigun guri Donostiya'n. Ura saltzen digute sagardoteriyan, ez fio...leran ere, preziyo aundiyan, eran genezakenak merke iturriyan.</p> | <p>4. Sagardua hasi dala amasei kuartuan, basoko txanponian preziyo klaruan. Kuadrilla juaten gera ona dalakuan, kanporako zalia probatutakuan, eserita egon gabe luzaro bankuan.</p> | <p>7. Aizu, tratalariya: kontubak atera, utzi gabetanikan anima galtzera. Abiyatu zindezke konfesatuzera, gero kotxian sartu ta enterratuzera, dirubak utzi eta juan bearra zera.</p> | <p>10. Pena haundiya izango dezute iltzia, interesak egin ta munduban uztia. Iguar konparatzen det batekiñ bestia, ajola gabe dago ez duben tristia, denbora dezun arte akorda zaitia.</p> |
| <p>2. Donostiya'ko ur gezak ditut urrikari: kulparik gabetanik noiznahi preso jarri. Gero handikan saldu jende tontuari, ez gera ibilliko altxa ta erori, boltsak ezin beterik or dabilta larri.</p> | <p>5. Sagar-tratalariyak dabilta eroso, gu, eraten degunak, oiekin penoso. Ura sartzen digute kupeletan preso, lenago oker egiña dalako akaso, orrela kulpa badu gaztelura jaso.</p> | <p>8. Karga bat sagarrekiñ iru karga erari, baliyatzen dirala gauzak badiruri. Preziyua eragiten diyote urari, etxera karriatu diruba ugari, ez dira urrikitzen jende pobriari.</p> | <p>11. Kupelaren aurrian dan tabernariya, zenbait personarekin det urrikariya. Irukitzen ez badu ona memoriya, satisfaziya edo bestela guardiya, ezta etxeratuko sagardo-sariya.</p> |
| <p>3. Gure gazte denboran ziran sagarduak, naiz geiago mozkortu, indar aundikuak. Estimatu litezke oraiñ alakuak, baño saltzen dituzte pitar-modukuak, tratalariyak daude maliziatuak.</p> | <p>6. Aurten esperantza zan sagarra gogotik, gutxi dala diyote loretubagatik. Ez dirade asiko preziyo bajutik, alegiña saiatu nor bere aldetik, ardua merke bada ez diyo inportik.</p> | <p>9. Emen egiñagatik dirubaren jabe, eramango zaituzte sentidurik gabe. Geldituko zerade gu bezala pobre, munduban daudenentzat izango da hobe, aixa egingo dira interesen jabe.</p> | <p>12. Orra amabi bertso Donostiya'rako, sagar-tratalariyen erreparorako. Diruba nahi dubenak obra ona geroko, limurtuko bagindu beste baterako, afizionatubak geok geralako.</p> |

URBITARTE Sagardotegia



Ergoien auzoa ATAUN Tfnoa. (943) 88 83



SAGARDOTEGIA

ABURUZA

☎ 69 24 52 - 69 21 53 ADUNA

SAGARDOTEGIA

SATXOTA

ESPECIALIDADES :

- * BACALAO FRITO
- * CHULETAS
- * CABRITO AL BURDUNTZI



Bº Elbarrena (Frente a Marie Brizard) ZIZURKIL

☎ 943- 69 02 64 (Partic.) 943- 69 11 99

IZETA Sagardotegia Erretegia

kuadriletarako bereizia. Bista zoragarriak

Izeta baserria. AIA Tfnoa. 13 16 93

RUFINO IZAGIRRE SAGARDOTEGIA

Akarregi baserria. HERNANI

☎ 55 27 39 - 55 54 26

MURVAZPI



SAGARDOTEGIA

UROLA GARAIKO SAGARDOTEGIA

Tf.: 73 33 26 S. Ignazio, 25

LEGAZPI

Alegian



ELORRABI SAGARDOAK

OSIANAGA AUZOA

☎ 55 03 88

Elorrabi baserria, 15

HERNANI

MARTXETA HAUNDI

Sagardoa - Erretegia



Enrike Merketegi - M Dolores Eizmendi
Casa Martxeta Haundi, 11 tfnoa. 69 22 22 ASTEASU